

HEZKUNTZA ETA KULTUR EKIPAMENDUA PORTUGALETEKO MERKATUAN

IÑIGO GALDEANO PEREZ



“Donostiako Arkitektura Eskolan **-ez besteetan-** Gradu Amaierako Lanean eraikuntza proiektu megalomano bat garatzera derrigortzen gaituzte, eta mespretxatzen dituzte eta ez dituzte kontuan hartzen beste arloetan landutako edukiak. Are gutxiago genero ikuspegia. Hots, ezin nuen txosten hau eskolan aurkeztu. Beraz, helburu bakarra du; Nahiz eta sustatutako lehiakortasunaren kontra egon, EHUk antolatutako jardunaldiaren eta sariaren bidez **apurka-apurka genero ikuspegiak eskolan erreferentzialtasuna izatea.**

“Genero ikuspegia txertatzen duten Gradu Amaierako Lanak ikustarazteko I Jardunaldiak”
“Genero ikuspegia Gradu Amaierako Lanetan barne hartzearen Francisca de Aculodi sariaren II. Edizioa”
 Ziur aski genero ikuspegia barne hartzen duten lan hobeak etorriko dira, eta hala espero dut, baina horretarako, nonbaitetik hasi beharko da. **Gora borroka feminista!**”

Iñigo Galdeano Perez

ARKITEKTURAN OINARRIETAKO GRADUAREN AMAIERAKO LANA

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa // 2014 - 2015

Ikaslea: **Iñigo Galdeano Perez**

Tutorea: **Koldo Telleria Andueza**

Lanaren izenburua: **Hezkuntza eta kultur ekipamendua Portugaleteko merkatuan**

Kreditu kopurua: **9 kreditu**

Lorturiko kalifikazioa: **5.00**

Lizentzia: **CC BY-NC (Atribuzioa - Ez komertziala)**



MULTZO MONUMENTALAREN PLAN ESTRATEGIKOA 03.34

Plan Estrategikoaren planteamendua	05.06
Zer da parte hartzea?	07.08
Gradu Amaierako Lana	09.10
Analisia	11.12
Ingurune Arkitektonikoa. Analisia	13.14
Ingurune Soziala. Analisia	15.16
Hiri Ingurunea. Analisia	17.18
Diagnosia	19.20
Hiri Ingurunea. Diagnosia	21.22
Proposamen Ideala	23.24
Hiri Ingurunea. Proposamen Ideala	25.26
Hiri Ingurunea. Proposamen Ideala (Eskema)	27.28
Gaur egungo egoera (Axonometria)	29.30
Hiri Ingurunea. Proposamen Ideala (Axonometria)	31.32
Eraikuntza Proiektua	33.34

GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA. HIRI ESKALAN 35.44

Irisgarritasuna	37.38
Irisgarritasuna	39.40
Egunerokotasuna	41.42
Segurtasuna	43.44

GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA. ERAIKUNTZA ESKALAN 45.46

Irisgarritasuna	47.48
Egunerokotasuna	49.50
Segurtasuna	51.52

ONDORIOAK 53.56

Bibliografia	55.56
--------------	-------

LA SORGIÑA LUZIA. KOIUNTURA

DIAS TURBIOS, 1991


*Ha bajado la sorgiña
del monte donde vivía,
a comprarse una escoba
la que tiene no servía
para volar más alto
para irse más lejos,
donde el hombre no llegue con su maldito progreso.*

*A la sorgiña Luzia
le gusta la ecología,
ya no le quedan hierbas
para hacer brujerías,
Luzia está cabreada
porque le tiran las hayas,
con sus cortezas hacia ungüentos condena almas.*

*La sorgiña Luzia,
ella ya no se fía,
lo que están haciendo
en toda Euskal Herria.*


*Bombardean las Bardenas,
hacen pantanos monstruosos,
y si fuera esto poco ahora también autovías.*

*Luzia pendenciera, prepara un akelarre
y vamos a ir todas, beberemos su tintorro
para que seamos más fuertes
y echemos de nuestra tierra
a los militares, gobernantes y mangantes!!*



MULTZO MONUMENTALAREN PLAN ESTRATEGIKOA

IÑIGO GALDEANO PEREZ



ANALISIA, DIAGNOSIA, PROPOSAMENA

01 PLAN ESTRATEGIKOAREN PLANTEAMENDUA

PLAN ESTRATEGIKOAREN PLANTEAMENDUA

PLAN ESTRATEGIKOA.

Hasteko, **Birgaitze Integratuaren Metodologia** oinarriaz hartuz, Portugaleteko Multzo Monumentalaren Plan Estrategikoa garatzeko hurrengo hiru fase planteatu ditut:

- 1 ANALISIA
- 2 PROPOSAMEN IDEALA
- 3 ESKU HARTZE PROPOSAMENA

Naiz eta hiru fase hauek teknikoaren eskuen egon, behar den dokumentazioa garatu ahal izateko, fase guztien artean **"Parte Hartze prozesuak"** diseinatu dira, hau da;

DIAGNOSIA Analisisian jasotako informazioaren irakurketa kolektiboa // Proposamen idealaren oinarria.

OZTOPOEN IKERKETA Proposamen idealaren hipotesitik auzo errealitatera // Esku hartze proposamenaren oinarria.

Metodologia malgua proposatzen da. Alegia, ez da metodologia dogmatikoa eta edozein momentutan, zerbait moldatu behar denean, atzera pausuak eman daitezke. Halaber, proposatutako "parte hartze" guneak minimoak betetzeko asmoa daukate, eta behar diren espazioak gehitu daitezke errealitatearen konplexutasunera moldatu ahal izateko.

"Partehartzeak komunitatera egokitu behar du, komunitatearen partaideek erabaki behar dutelako aztertuko den espazioak zer eskaini behar duen."


(Hiria Kolektiboa, 2010;38)

Hiru fase hauen ondoren eta behin betiko onarpena eman baino lehen, prozesu osoaren **EBALUAZIOA** eta **ONDORIOAK** planteatzen ditut, planaren kudeaketa hasteko edo prozesua deuseztatzeko. Kontuan hartu behar da, planaren planteamenduan erabiltzen ditugun baliabide gehienak sozialak direla eta ondorioak naturalak eta kapitalak. Berriz, planaren kudeaketan erabilitako baliabideak naturalak eta kapitalak izango direla, eta ondorioak sozialak. Beraz, ez dugu beldurrik eduki behar planak deuseztatzeko momentuan, urte hauetan egindakoa errepika ez dadin. **Zain dezagun Ama Lurra !! Zain dezagun Herria !!**


Azkenik esatea, metodologia honek plan estrategikoaren osaketa besterik ez du kontuan hartzen.

Kudeaketan, eta egunerokotasunaren aplikazioan beste motatako estrategiak planteatu beharko dira.

BAINA ... ZER DA PARTE HARTZEA ??



PLAN ESTRATEGIKOA



ZER DA PARTE HARTZEA ??

PLAN ESTRATEGIKOA.

Parte hartzea funtsezko pausua da, herritarrok erabaki behar dugulako zer eskaini behar duen kantoi bakoitzak. Erabiltzaileok badakigulako non behar dugun banku bat, zein den oztopatzen gaituen espaloia, ze semaforo dagoen txarto, non ez garen seguruak sentitzen... planoetan ikusiezinezko marrak ikusten ditugulako. **Herri berdintzaileagoa diseina dezakegulako !!** Zoritxarrez, egun, arkitekturak eta hirigintzak herritar tipo jakin bati erantzuten die: gizona, diruduna, motorduna, familia edo etxeko kargarik gabekoa... Mundu kapitalista, patriarkal eta androzentriko honen desinformazioan, ba al da posible benetako parte hartzea ??

"Boteretsuek eraikitzen dute, hori delako dagokiena" (Deyan Sudjic, 2007;6)
"Beti ez da proletariorik egon, baina beti egon dira emakumeak" (Simone de Beauviour, 1983;14)

Eraikitzeari ekin genionetik gu gara boteretsu horiek, gizonok. Eta geure beharrei erantzuten ari gara. Baina, geure herritar motorduna agurtu eta gero, ikusten dut zein izan beharko litzatekeen parte hartze prozesuaren ardatza; Bizitza konplexuak eta lan-ordutegi bikoitzak dauzkatenak, egunean milaka egin behar dauzkatenak, milaka bidaia egiten dituztenak, haur, gazte, adineko... kolektibo askoren ikuspuntuak ezagutzen dituztenak, **emakumeak !!**



GAUR EGUN, NON OTE GAUDE?

ARNSTEIN ESKALA

Nik ez dut parte hartze prozesu bat diseinatzeko gaitasunik, nire formakuntzaren parte izan ez delako. Baina, hemen esandakoa kontuan hartuz eta ingurura begiratzuz, ez dakit nik ea desinformazioagatik manipulatua izaten ari garen. Parte hartzea ez da gainditu behar den urrats burokratiko bat, orain gertatzen den bezala. Baina, **ba al da posible informaziorik gabeko parte hartzea ?? Ba al da posible benetako parte hartzerik mundu androzentriko honetan ??**

**"NORENTZAT ERAIKI BEHAR DA ETXEA ??
 GIZONENTZAT, EZ DAGO DUDARIK.
 GIZONA ETA BERE BEROKIA."**
 Le Corbusier

HERRITAR-KONTROLA

BOTERE ESKUORDETZA

LANKIDETZA

INPLIKAZIOA

KONTSULTA

INFORMAZIOA

HEZKUNTZA

MANIPULAZIOA

MANIPULAZIOAN ??

PLAN ESTRATEGIKOA.

"Arkitekturak boterearekin zerikusia du. Boteretsuek eraikitzen dute, hori delako dagokiena. (...) Posible da hizkuntza arkitektoniko batek esanahi politiko konkreturik ez izatea, baina honek ez du esan nahi arkitekturak ez duenik funtzio politikoa bere gain hartzeko potentzialik."
 (Deyan Sudjic, 2007;6)

"Boterea erlazio bat da, hau da, ez da pertsona boterea daukana, pertsona horrek betetzen duen espazioa baizik. Posizio sozialak edo, Foucaultek esaten zuen bezala, subjektu posizioak dira boterea daukatena, ez indibiduoak. Lehendakariak boterea dauka, bai, baina ez Urkullu delako, lehendakaria delako baizik. (...)



Beraz, pertsonak ez dute boterea besterik gabe, beren erlazioen arabera dute, eta faktore asko sartzen dira hor: kapital ekonomikoa (zenbat diru daukazu), kapital kulturala (zer prestakuntza daukazu), kapital sinbolikoa (prestigioa, familia, kontaktuak, emakumea edo gizona zaren, etorkina edo bertakoa...). (...)

Gizon bezala etiketatzen diren gorputzak berentzat eginda dagoen mundu batera jaiotzen dira: prestigioa ulertzeko era, zeri ematen zaion balioa, zer jotzen da ezagutzatza, zer gorputz normaltzat... horrekin guztiarekin jaiotzen dira. **Eta hortik datorkie boterea:** beraiantzat egindako mundu batean bizitzetik. Gu, berriz, leku berean egonik, justu alderantzizko egoeran gaude, eta hori da haiek identifikatzen ez dutena."
 (Jule Goikoetxea, 2015)

eraiki

eraiki

eraiki



GRADU AMAIERAKO LANA

PLAN ESTRATEGIKOA.

Gradu Amaierako Lana garatzeko planteatutako metodologia moldatu behar izan dut, alde batetik lan teorikoa delako, eta beste aldetik Donostiako Arkitektura eskolan -ez besteetan- eraikuntza proiektu megalomano bat garatzera derrigortzen gaituztelako.

Beraz, daukadan denbora eta baliabide eskasekin hurrengo pausak jarraitu ditut Gradu Amaierako Lana eta planteatutako metodologia lotzeko. Beti kontuan hartuz ebaluatuko duten gauza bakarra eraikuntza proiektua izango dela.

- 1 ANALISIA
- 2 HIRI INGURUNEAREN DIAGNOSIA
- 3 HIRI INGURUNEAREN PROPOSAMEN IDEALA

Arkitekto eta emakumea izateak ez du esan nahi egiten den arkitektura berdintzaileagoa denik. Horretaz konturatzeko Zaha Hadid-en eraikinak besterik ez ditugu ikusi behar. Era berean, metodologia berriek edo parte hartze prozesu zabalek beti ez dizkigute ekarriko espero ditugun emaitzak. Hau da, orain arte esandakoa lan honen ildoak besterik ez da izan, orain arte idatzitakoak ez du arkitektura berdintzaileagorik ekarriko. Berriz, hemendik aurrera genero ikuspegiaren eragin "arkitektonikoa" erakusten saiatuko naiz. Eta horretarako, egungo arkitekturaren bi joera nagusienetarikoa ahaztuko ditut; Teknokraziaren garrantzia eta patriarkatu kapitalistaren edertasuna.

"Jendeak nire arkitektura itsusia dela esaten du. **Esaten dute interesgarria dela, baina itsusia; eta nik diot, nork ez dauka lagun itsusi bat ??**

Guztiok daukagu lagun itsusi bat !! Agian itsusia da, baina jatorragoa, edo aberatsa eta garagardoetara gonbidatzen zaitu. Gaur egun arkitektura obsesionatuta dago eraikin ederrekin eta proiektu politekin, eta gezurra da !! Arkitektura merkea, funtzionala eta jendea elkartzeko. aitzakia bat izan beharko litzateke. Nahiago ditut lagun itsusiak baina pertsona onak direnak."


(Santiago Cirugeda, 2015)

ANALISIA Informazio teknikoa bildu eta informazio grafikoa sortu ez ezik, **informazio guztia ulergarria** bihurtu dut ere.

DIAGNOSIA Parte Hartze prozesurik gabe, era azkarrean eta adibide modura, **Hiri Ingurunearen diagnosi propioa** gauzatu dut.

PROPOSAMEN IDEALA Hiri Inguruneke proposamena planteatu dut, non bihotza derrigortutako eraikin megalomanoa baita.

KONTRAESANA; GENERO IKUSPEGIA PROPOSAMEN MEGALOMANO BATEAN ...



ANALISIA

PLAN ESTRATEGIKOA.

Lehenengo fasea, analisia ?? "Informazio teknikoa bildu eta informazio grafikoa sortu ez ezik, informazio guztia ulergarria bihurtu dut ere." Informazio asko jaso eta sortu dut, grafikoa, teknikoa, idatzia ... Baina informazio guzti honek ez du ezertarako balio herritarrentzat ulergaitza baldin bada. Informazioa ulergarria bihurtzeko, dauzkadan baliabideekin hurrengo prototipoa planteatu dut:

1 BANAKETA Informazioa hiru ingurune desberdinetan banatu dut: Ingurune Arkitektonikoa, Ingurune Soziala eta Hiri Ingurunea.

2 SEMAFOROA Informazioa banatu arren, atal bakoitzak bere neurriak eta irakurtzeko erak dauka. Hortaz, **nola erraztu datuen irakurketa ??** Datu guztiak hizkuntza berberera moldatuz. Semaforo bat planteatzen dut non gorriak egoera txarra dela esan nahi baitu, horiak ertaina, eta berdeak ona. Zenbakitan, egoerarik txarrena 1 da eta onena 3, eta emaitza hauek lortzeko formula batzuk planteatu ditut hasieran lortutakoak itzularazteko.

3 GENERO IKUSPEGIA Informazio banatua eta ulergarria bihurtu arren, androzentrismoak erroak egin ditu. Zeri ematen diogu garrantzia? Zergatik gorria da eta ez berdea? Zergatik formularen emaitza 1,3 da eta ez 2,6?

INGURUNE ARKITEKTONIKOA

Egoitza eraikinak. Etxebizitzak (egoitza eta nukleo bertikala) eta lokalak.

Kontuan hartu ditzakegu Alde Zaharraren Dysneifikazioa edo lokalen eta etxeen bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzak. Bukolikoa izan leike lotizazio gotikoa baina niri ez litzaidake gustatuko bizitza infraetxe batean, aireztapenik eta argiztapenik gabekoa. Adibidez, Plan Bereziak auzokideei zurezko arotzeria jartzera derrigortzen zien, nahiz eta instalakuntza eta mantenua garestiago ez ezik eraginkortasun baxuagoa ere eduki.

Dysneifikazioaren kontra, auzokideen alde !!

INGURUNE SOZIALA

Biztanleriaren ezaugarriak, eta inguru arkitektonikoarekin daukaten erlazioa.

Alegia, adina, generoa, ... kontuan hartzeaz gain, etxe eta lokal hutsen kopurua eta hauen eredu ekonomiko edo egunerokotasuna kontuan hartu ditut. Euskal Herriko egoerarik txarrenetariko bat pairatzen du, %20a etxe hutsak dira. Herriko auzokideen batezbesteko adina altuena da, eta lokal gehienak hutsak eta ez irisgarriak izateaz gain okupatuak dauden gehienak tabernak dira.

Beteko ote dira egunerokotasunak sortzen dituen beharrak ??


HIRI INGURUNEA

Espazio libreak eta ekipamenduak. (egoitzarik ez daukaten eraikinak)

Kontuan hartutako aspektuak kontserbazio egoeraz gain, espazio librean irisgarritasuna eta segurtasuna eta ekipamenduen ustiapen eta egunerokotasuna izan dira.

Zenbaki eta kolore batzuk besterik ez izan arren diagnosian auzokideei informatzera eta ikuspegi orokorrek sortzera lagunduko die.


	INGURUNE ARKITEKTONIKOA	2,05
	IA.1. ERAIKINEN EGOERA	2,95
	IA.1.1. Kontserbazio maila	2,95
	IA.2. ETXEBIZITZEN EGOERA	1,85
	IA.2.1. Bizigarritasuna	2,15
	IA.2.2. Irisgarritasuna	1,30
	IA.3. LOKALEN EGOERA	1,65
	IA.3.1. Irisgarritasuna	1,65
	INGURUNE SOZIALA	1,65
	IS.1. ETXEBIZITZEN OKUPAZIOA	1,45
	IS.1.1. Etxe huts	1,45
	IS.1.2. Biztanle/etxebizitza	1,45
	IS.2. BIZTANLERIA	2,10
	IS.2.1. Adina	1,85
	IS.2.2. Sexua	2,45
	IS.3. LOKALEN EREDUA	1,65
	IS.3.1. Lokal huts	1,65
	IS.3.2. Egunerokotasuna	1,80
	HIRI INGURUNEA	2,10
	HI.1. HIRI INGURUNEAREN EGOERA	2,90
	HI.1.1. Kontserbazio maila	2,90
	HI.2. ESPAZIO LIBREEN EGOERA	1,60
	HI.2.1. Irisgarritasuna	1,55
	HI.2.2. Segurtasuna	1,65
	HI.3. EKIPAMENDUEN EGOERA	2,00
	HI.3.1. Ustiapena	2,05
	HI.3.2. Egunerokotasuna	1,95












HIRI INGURUNEAREN DIAGNOSI PROPIOA PLAN ESTRATEGIKOA.

Bigarren fasea, diagnostia ?? "Parte Hartze prozesurik gabe, era azkarrean eta adibide modura, Hiri Ingurunearen diagnostia propioa gauzatu dut." Analisitik zenbait ondorio atera daitezke, eta ikuspegi orokorra ematen digu, baina Analiaren helburu nagusia Diagnostiaren euskarria -informazioa- izatea da. Diagnostian, auzo egoeraren irakurketa kolektiboa sortzen dugulako. Gaur egun mesprexatutako egunerokotasunaren esperientziak erakutsi ahal digu, teknikook marrazten ez duguna, ezin dugulako.

Hirigintza teknokrata ahaztuz, goazen galdetzera !!



A PLAZA EZ IRISGARRIA Gaur egun polikiroldegiaren azpian eta aparkalekuaren gainean dagoen plaza berria ez da batere irisgarria. Sarbide anitzak eduki arren, guztiek eskailera asko edo izugarritzko maldak daukate.

Proposamena: Merkatuan igogailu eta pasabide publikoak proiektatzea plazaren irisgarritasun baldintzak bermatzeko.

B EKIPAMENDU HUTSA Eraikin honek ez dauka erabilerarik. Lehen, aparkalekuak ziren, baina egungo Plan Orokorren arabera botatzeko moduan dago.

Proposamena: Alde Zaharreko eraikin gehienek ez daukate trastelekurik, beraz, kokapenagatik ,eskailera mekanikoen ondoan dagoelako, leku aproposa da trasteleku publikoak proiektatzeko.

D ARRAPALA MEKANIKOAK Arrapalek 30 metro gainditzen dituzte, luzeran 8 tramu, guztira 250 metro eta egunero 24.000 biztanlek erabiltzen dituzte. 3 milioiko proiektua izan arren irudikatutako puntuan ez da bermatzen irisgarritasuna. Alde Zaharreko komunikazio puntu garrantzitsuenetarikoa, oztopo arkitektonikoen arteko pasabide estuegia proiektatu zuten, 90 zentimetroko pasabidea.

Proposamena: Kultur etxea, formakuntza zentroa eta polikiroldegiaren artean dagoen errepidea igotzea, arrapala mekanikoen irisgarritasun baldintzak bermatzeko. Modu honetan oztopo arkitektonikoak saihesten dira eta oinezkoek lehenetsia lortzen dute.

E ORUBE HUTSAK Alde Zaharrean eraikuntzaren adinagatik orube asko hutsak geratzen ohi dira, eraiste eta eraikitze baimen eta lizentzia guztien artean urte pare bateko epea sortzen delako. Gaur egun, Alde Zaharrean 5 orube huts daude, lau Multzo Monumentalean eta beste bat ondoan.

Proposamena: Orubeak irekitzea. Sevillan, Zaragozan eta beste hainbat lekutan egiten den moduan. Multzo Monumentaleko kale estuetan arnas gunea sortzeko, espazio publikoa bizikidetzaren euskarria delako.

F PUNTU BELTZAK Multzo Monumentalak hiri bilbe gotikoagatik puntu beltz asko dauzka, eta egungo Inguru Sozialaren egoeragatik askoz arriskutsuagoak dira. Puntu beltz asko egon arren, seinalatutako puntua aipagarria da eta soluzio beharra dauka.


Proposamena: Genero ikuspegitik analisi eta proposamen ona egitea, Alde Zaharra ahalik eta seguruen lortzeko.


G ELIZAKO ESKAILERAK Egun puntu ez segurua eta ez irisgarria izan arren, potentzial handiko gunea da Alde Zaharreko komunikazioak hobetzeko.

H TRENBIDEAREN GELTOKIA Nahiz eta trenbidearen geltokia Alde Zaharrean ondoan egon, ez dauka komunikaziorik beste herriko auzoekin. Geltokia 30 metroko paretaren azpian egon arren, isolamendu hau konpontzeko garatutako proiektu guztiak gelditu dira geltoki ingurura heltzerakoan.

Proposamena: 1985an EHAE0ko saria izan zen Alberto Lopezen proiektua berreskuratzea, non igogailu eta pasabide publikoak planteatzen baitira geltokiaren isolamenduari amaitzeko.

I ALBERTO LOPEZEN PLAN BEREZIA Beste proposamenak.





HIRI INGURUNEAREN PROPOSAMEN IDEALA

PLAN ESTRATEGIKOA.

Hirugarren fasea, proposamen ideala ?? "Hiri Inguruneko proposamena planteatu dut, non bihotza derrigortutako eraikin megalomanoa baita." Analisia Diagnosiaren euskarria baldin bada, Diagnostika Proposamen Idealarena da. Puntu honetan, Proposamenean, Donostia Arkitektura Eskolaren errealitatearekin topatu naiz. Beraz, onartuz derrigortutako proposamen megalomano hau lanaren kontraesana dela, hau da planteatutakoa:


Diagnosi propioan bezala, Proposamen Ideala Hiri Ingurunera mugatuko da. Dena den, edozein proposamenak ingurune bat baino gehiagotan eragin dezake. Batzuetan eraginak aurreikusi ditzakegu, besteetan ez. Adibidez, Diagnostika aipatutako puntuak bi gidalerroetan antolatu ditut:

1 AZPIEGITURA BERDEA


2 EKIPAMENDUEN NODOA

Hauen eragina Hiri Ingurunean zuzena izan arren, Ingurune Arkitektonikoan ez dute eragingo, eta ez dakit nola eragingo duten Ingurune Sozialean.


GAUR EGUNGO EGOERAREN ANALISIA



HIRI INGURUNEAREN PROPOSAMEN IDEALA



PROPOSAMEN IDEALAREN ERAGINA



AZPIEGITURA BERDEA

PROPOSAMENAREN GIDALERROAK.

Multzo Monumentalaren Hiri Ingurunean, bai espazio libreetan bai ekipamenduetan, **herritar guztiak berdintasunez parte hartzeko baldintzak bermatzeko** hurrengo azpiegitura berdea proposatzen dut:

Multzo Monumentalaren inguruan eta plaza eta ekipamendu nagusienak lotuz **Eraztun** bat planteatu dut. Horretarako, Alde Zaharraren morfologiagatik, zenbait esku hartze txiki ez ezik Alberto Lopezen eta Gradu Amaierako Lanaren igogailu eta pasabide publikoak ere proposatu ditut, kota aldaketak gainditzeko.

Azpiegitura Berdeak bultzatzen dituen hurbiltasuna eta irisgarritasuna ezinbesteko baldintzak dira, familia edo etxeko kargak dituzten pertsonak, gehienetan emakumeek, bizi kalitate egokia lor dezaten.


EKIPAMENDUEN NODOA

PROPOSAMENAREN GIDALERROAK.

Egunerokotasunean oinarritutako ekipamendu sare irisgarria edo ekipamendu nodo irisgarria proposatzen dut.

"Hainbat gertaeraren elkargunea da nodoa, hainbat bideren gurutzeta; jendetzak gaitasun erreferentzial berezia hartzen duen lekua, eta zedarri batean bilakatzen duena. Irudika dezagun zein diren gure hiriko nodoak zein diren bere eskala anitzetan: hirian, auzoan, paseatzen dugun parkean, kalean, merkatuan... Edonork identifika ditzakeen nodo asko daude, denontzat puntu erreferentzial argiak direnak; erdiguneko gune asko, garraibide masiboetako mugarriak... Baina nodoak ezberdinak izango dira egiten ditugun ekintzen arabera: autoa izatearen edo ez izatearen arabera, adinaren arabera, lehentasunen arabera, beste pertsona batzuk zaintzearen edo ez zaintzearen arabera..." (Hiria Kolektiboa, 2010;22)


GIDALERROEN ESKEMA





EKIPAMENDUEN NODOA


- Santa Klara Kultur etxea
- Zubialde Polikiroldegia
- Formakuntza zentrua
- Eraikin Tertiarioa
- Merkatua GrAL**
- Udaletxea
- Hotela
- Aparkalekuak
- Bizkaiko Zubi Esekia
- ...
- Santa Maria eliza
- Santa Ana eskola
- Salazar Dorretxea
- Informazio gunea
- ...











ERAIKUNTZA PROIEKTUA

PLAN ESTRATEGIKOA.

Proposamen ideala ?? "Hiri Inguruneko proposamena planteatu dut, non bihotza derrigortutako eraikin megalomanoa baita." Derrigortutako eraikin megalomano hau Donostia Arkitektura eskolaren errealitatearen fruitua da.


Proposamen idealaren bihotza ?? Proposatutako eraikina espazio librearen eta ekipamenduaren arteko erlaziotik sortu da. Alde batetik, Ekipamendu Nodoaren nukleoa da, esku hartzearekin lotu direlako kota desberdinetan dauden ekipamenduak eta, beste aldetik, Azpiegitura Berdearen parterik garrantzitsuenetarikoa delako.

EKIPAMENDUA

Eraikinak hiru funtzio desberdin barne hartzen ditu; Ekipamendu Kulturala (790 m²), Tailer Publikoak (500 m²) eta Egunerokotasun Ekipamendua (430 m²).

ESPAZIO LIBREA

Pasabide eta igogailu publikoaz gain, altuera anitzeko plaza planteatu dut; Plaza Estalia (1.000 m²), Patioa (170 m²), Eszenatokia (70 m²), Terraza (450 m²), Igogailu Publikoa (1,8 x 1,8 m²), Pasabide Publikoa (3,0 x 18 m²) eta Beheko Aterpea (100 m²).



EKIPAMENDU KULTURALA

Erakusketa gela	165 m ²
Parainfoa	375 m ²
Liburutegia	400 m ²
Informazioa	25 m ²
Mahaiak	275 m ²
Informatika gela	45 m ²
Ikas gela	25 m ²
Artxiboa	200 m ²
Irakurtzeko gunea	65 m ²

TAILER PUBLIKOAK

Tailerra	150 m ²
Sormen gela	50 m ²
Bulegoa	25 m ²
Bilera gela	45 m ²
Arte gela	230 m ²

EGUNEROKOTASUN EKIP



Jangela	200 m ²
Sukaldea	30 m ²
Biltegia	10 m ²
Jangela	145 m ²
Komunak	15 m ²
Deskantsugela	60 m ²
Bideogela	110 m ²
Itxarotegela	60 m ²

BESTEAK

Takilak	60 m ²
Biltegia	50 m ²
Instalazioak	60 m ²
Komunak ⁰¹	60 m ²
Komunak ⁰²	30 m ²
Komunak ⁰³	40 m ²

KOMUNIKAZIOAK


Sarrera ⁰¹	70 m ²
Korridorea	150 m ²
Sarrera ⁰²	60 m ²
Nukleo bertikala	20 m ²



COLOR VIOLETA. KOIUNTURA

DIAS TURBIOS, 1991

*Mire donde mire, cerca o lejos
veo una mujer solitaria y triste.
Baldosas de cocina, vajillas, cubiertos
delantales que pudren cuerpos.
Mujeres sirvientas de la noche
fieles mujeres atentas madres.
Hacer el amor sin placer,
parir hijos y no querer.
Mujer revélate llego ya tu hora
Mujer revélate al fin
dale sentido a tu vida,
siéntete libre al fin.
Cuanto miedo en las aceras,
miradas que hieren hasta adentro.
Piropos de bocas agusanadas
y bajar la cabeza asustada.
Hoy por fin miro el espejo
una sonrisa estoy contenta
mi cuerpo desnudo recita versos
versos libres de color violeta.
Mujer revélate llego ya tu hora,
mujer revélate al fin
dale sentido a tu vida,
siéntete libre al fin.*



GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA


HIRI ESKALAN

IÑIGO GALDEANO PEREZ

GIZONA
OSASUNTSUA
DIRUDUNA
MOTORDUNA
ETXEKO KARGARIK GABEKOA
...

EREDU UNIBERTSAL
FALTSUA

Arkitekturak eta hirigintzak herritar tipo jakin bati erantzuten diote.



IRISGARRITASUNA



GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA HIRI ESKALAN.

"Zoritxarrez, arkitekturak eta hirigintzak herritar tipo jakin bati erantzuten diote; gizona, diruduna, motorduna, familia edo etxe kargarik gabekoa ..." Hasteko, gauza bat argitu beharra dago, irisgarritasun kontzeptua zabaldu behar da; **oztopo arkitektonikoak deuseztatzeaz gain, errealitate fisikoari eta sozialari egoki erantzun behar diogulako.** Hau da, egungo mugikortasun (edo irisgarritasun) azpiegituren diseinuak lan produktiborako bidaiak balioztatzen ditu beste edozein bidai moten gainetik. Irisgarritasun planek herritar eredu unibertsal faltsu bati erantzuten diote, eta ez egunerokotasunak eskatzen duen konplexutasunari.



¿ . ? Pentsatu zure eskualdean, zure herrian, zure auzoan. Abiadura Handiko Trenak, Autobideak, Metroak ... Gizonok familia ardurarik ez dugunez, helburu bakarreko bidaiak egin ohi ditugu: Metroz etxetik lanera, autoz lanetik etxera. Berriz, emakume gehienek bizitza konplexuak eta ordutegi bikoitzak dauzkate. Eta egoera honek sortutako helburuei erantzuteko mugitu behar izaten dute; erosketara, zaintza lanetara, laguntza lanetara, gestioak egitera, eta abar; bidai amaigabeak. **"Helburu askotarako bidaiak motz ugari alde batetik, eta bestetik, lanean soilik oinarrituriko bizimoduaren joan-etorriko bidaiak."** (Hiria Kolektiboa, 2010;28)

PROPOSAMENA. AZPIEGITURA BERDEA

Planoan ikusten den moduan, topografikoki herri txiki eta maldatsua da. Sestrek ibilbide nagusiak irudikatzen dituzte. Gure kasuan, nahiz eta Multzo Monumentalak azpiegitura guztien arteko korapiloan egon, ez dago haien arteko loturarik. Beraz, hiri eskalan Azpiegitura Berdeak bi igogailu publikoen bidez, bide, trenbide eta oinezkoentzako azpiegituren korapiloaren potentziala ustiatzeko helburua dauka. Eta auzo eskalan ekipamendu eta plaza nagusienak lotzekoa. "Azpiegitura Berdeak bultzatzen dituen hurbiltasuna eta irisgarritasuna ezinbesteko baldintzak dira, familia edo etxe kargak dituzten pertsonak bizi kalitate egokia lor dezaten"



Ekipamenduen erabileren eta koten eskema; 27-28



- Bide azpiegiturak
- Trenbide azpiegiturak
- Oinezkoentzako azpiegiturak
- Arrapala mekanikoak



02 IRISGARRITASUNA

IRISGARRITASUNA

GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA HIRI ESKALAN.

Proposamen megalomanoa ahaztuz, askotan proposamen txiki eta merkeek -egunerokoe- erantzun egokienak ekarriko dizkigute:

ADIBIDEA Plano topografikoan ikusten den moduan arrapala mekanikoen kokapena estrategikoa da, herriko ibilbide nagusiak lotzen dituztelako. Berriz, arrapalek ez diote egunerokotasuneko bidaien konplexutasunari erantzuten; "El Ayuntamiento de Portugalete inauguró ayer las rampas mecánicas de Casilda Iturrizar. Dividida en ocho tramos, la nueva infraestructura une el corazón comercial del municipio con la zona próxima a la ría." (elcorreodigital) Turismo eta kontsumismoarako proiektua da, **arrapalek bihotz komertziala eta bihotz turistikoa lotzen dituztelako**. Dena den, teknokratek ez digute esango helburuak turismoa, kontsumismoa edo Alde Zaharreko Disneyfikazioa direnik. Irisgarritasuna dela esango digute. Baina, arrapalek 30 metro igotzen dituzten arren, egunero 24.000 biztanlek erabiltzen dituzten arren edo 3 milioiko proiektua izan arren irudikatutako puntuan ez da irisgarritasuna bermatzen. Puntu honetan dagoen errepidea igotzen badugu, eta oinezkoei lehentasuna ematen badiegu irisgarritasuna bermatu ez ezik, ekipamenduen arteko lotura ere lortuko dira. Gainera komunikazio puntu garrantzitsuenetarikoa da. **3 MILIOIKO PROIEKTUA = OZTOPO ARKITEKTONIKOAK**



GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA



EGUNEROKOTASUNA

GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA HIRI ESKALAN.

"Emakume askok, egungo bizimoduak halabeharrez bultzatuta, hainbat lanaldi berean egin behar izaten du. Etxeko lanak egitearen (familiarren, etxearena ala norberarena), haurrak, adinekoak eta gaixoak zaintzearen, otorduak prestatu eta ematearen, garbiketa egitearen, eta antzerako hainbat lanen ardurak bateragarri bihurtu behar dituzte beste lan batekin. Gaurdaino oso gutxi partekatatu diren ardura horiek lanorduekin bateragarri egiteko modu bakarra dago, zaintzako azpiegiturak eskura izatea: oinarritzko hornidurak, aisiaguneak eta etxetik oso hurbil dagoen lanpostu bat. **Hurbiltasuna edo irisgarritasuna ezinbesteko baldintza da,** familiako edo etxeko kargak dituzten pertsonak, gehienetan emakumeek, **bizikalitate egokia lor dezaten."** (Hiria Kolektiboa, 2010;27)

PROPOSAMENA. EKIPAMENDUEN NODOA

Ekipamenduen egitura ezinbestekoa da lekualdatzeak errazteko, espazioaren kontrola eta autonomia sustatzeko, bizitzaz betetako auzoak eta herriak sortzeko. Azken urte hauetan, Portugaleteko periferian eraikitako makroekipamenduak eraiki beharrean (A; Ballonti merkataritza gunea, B; Pando Aisia makro-polikiroldegia, D; legearen estandarrak betetzeko makro-espazio libreak), gertutasunezko Ekipamendu Sarea edo Ekipamenduen Nodoa planteatu dut. Alegia, Ballonti, Pando Aisia edo periferiaren makro-espazio libreak baztertuz, hauen eredu patriarkalaren kontra egiten, gertutasunezko ekipamenduz eta espazio libreez osatutako auzo sarea planteatu dut; Herriaren sakabanatzeak eta polarizazio patriarkal honek aukerak kentzen dizkigutelako; zaharrei espazio libreetara bakarrik joateko aukera; umeei eskolara edo polikiroldegira bakarrik joatekoa; amari eta aitari euren haurrekin egoteko aukera, erosketak egiten dituzten bitartean. **Ekipamenduen Nodoak herria berriz atsegina izatea egiten du.**

01. ESKUHARTZEA EKIPAMENDUEN USTIAPENA

Egun, Multzo Monumentalaren ekipamenduek eskainitako zerbitzuak makro-ekipamenduetara eramaten ari dira. Adibidez, Zubialdeko polikiroldegia ikastaro eta material guztiak periferian dagoen makro-polikiroldegira eramanten ari dira. Erakinen ustiapena berreskuratzea lehentasunezkoa da.



02. ESKUHARTZEA EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA

Nahiz eta gaur ekipamenduen sarrerak kota desberdinetan egon, Azpiegitura Berdeari esker haien lotura lortu dut, ekipamendu anitzeko sare bat sortzen.

03. ESKUHARTZEA EKIPAMENDUEN IRISGARRITASUNA

Egun, kota aldaketak ekipamenduen arteko barrera nagusia izan arren, automobilaren nagusitasunarekin gehiago baztertzen dira. Beraz, lehen esan dudan moduan, ekipamenduen artean oinezkoen lehentasuna bultzatu dut.

Ekipamenduen erabileren eta koten eskema;
27-28



Ballonti Merkataritza Gunea A
Pando Aisia Makro-Polikiroldegia B
Makro Espazio Libreak D
Multzo Monumentala E

SEGURTASUNA

GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA HIRI ESKALAN.

Irigarritasun, egunerokotasun eta segurtasun kontzeptuak errealitate bat osatzen dute, eta bakoitzak besteen beharra dauka. Auzo batek egunerokotasun erreala sustatzen badu, errealitate konplexutasunari erantzuten badio, hurbiltasuna eta irigarritasuna ezinbesteko baldintzak dira. Auzo batek irigarritasun erreala sustatzen badu, oztopo arkitektonikoak deuseztatzeaz gain, errealitate fisikoari eta sozialari erantzuten badio, egunerokotasuna ezinbesteko baldintza da.

Eta segurtasuna? Auzo irigarriak eta egunerokoak seguruak izango dira. Hasteko, garrantzitsua da espazio publikoan segurtasunaren pertzepzioa izatea, espazio publikoan berdintasunez parte hartzeko ezinbesteko baldintza delako. Segurtasuna lortzeko hurrengo baldintzak bete behar dira; "Ingurua ezagutzea; non gauden eta joan nahi dugun lekua non dagoen jakitea (orientazio erraza eta inguruko elementu guztien ulermen erraza izatea); Ikustea eta ikusia izatea. Entzutea eta entzuna izatea; Irteera bat beti begi-bistan izatea edo laguntza eskatzeko aukera izatea; Ingurua garbi eta zaindua egotea; Espazio publikoan era kolektiboan aritzea." (Hiria Kolektiboa, 2010;35) Herriaren sakabanaketak auzoetan eragin handia dauka. Periferiaren makro-ekipamenduek eta merkataritza guneek gertutasuneko komertzioak hiltzen dituzte, eta kapitalismo basati hontan bakarrik Inditexen dendak iraun daiteke. Beraz tabernak iraunarazteko, auzo monofuntzionalak sortzen dira, nahigabe herriaren sakabanaketan sakonduz. Adibidez, Murtzo Monumentaleko %90a tabernak dira, guztiak ordutegi antzeko dauzkatenaz, tabernak hustu eta ixtearekin batera kalea ixten da, eta segurtasun pertzepzioa galtzen da. Gainera, komertzio gehienak ez ezik etxebizitzaren %20a ere hutsik dago, beraz, ez dugu ikusten eta ez gara ikusiak, ez dugu entzuten eta ez gara entzunak. Hots, Murtzo Monumentala ez da espazio publiko bizia, ez da espazio publiko segurua.

PROPOSAMENA AUZO FUNTZIOANIZTUNA

Irudikatutako puntuan etxeak eta komertzioak hutsak daude, kantoia estua da, alegia, **Puntu Beltza**. Egun, kamara bat jarri dute eta presentzia poliziala indartu dute. Baina demagun kale honetan beheko solairuan okindegi bat dagoela, pare bat taberna, ile-apaindegi bat, burdindegi bat eta hiru etxebizitza. Azpiegitura Berdearen barnean dagoela, eta Ekipamendu Nodoren ondoan. Hau da, kale funtzio-aniztuna, bizikidetzan oinarritua, lokal bakoitzak ordutegi bat. Kale horretan beti topatuko genuke lokal bizi bat, bai okindegia, bai etxebizitza. Beti segurtasun pertzepzioa edukiko genuke, polizia patriarkalik gabe, kamerarik gabe. **AUZO FUNTZIOANIZTUNA VS ANAI HANDIA**



(Kattalin Miner, 2014;20)

"Hiriak bi hiritar motetan banatu daitezke: polizia ikusi eta seguru sentitzen diren horiek, eta polizia ikusi eta zer edo zer txar egin ote dugun pentsatzen hasten garen horiek; seguru sentizetik oso urrun gauden horiek.

(...)Nazkatuta nago polizia guzti horrekin, nazkatuta nago begirada autoritarioekin, nazkatuta nago jarraipenekin, akosoekin, horiek denekin. Izan ere, poliziak ez dio patriarkala izateari utziko emakumeak uniformatzearekin, benetan polizia herritarren zerbitzura jarri nahi badute, egitura poliziala aldatu beharko litzateke, egitura patriarkal eta militar hori. Benetan herritarren zerbitzurako polizia bat nahi badute, kaleetatik atera beharko lirateke, hiritarrak zelatatzeari utzi, torturatzeari utzi, gomazko ezta algodoizko pilotak izateari utzi, interpelatuak izateko gaitasuna garatu, inpunitatea ezabatu. Bakea poliziak ekarriko badu, bide bat eta bakarra baitute: hiritarrak bakean uztea."



ROMPER LA NORMA. KOIUNTURA

ITOIZ BIEN VALE UN CABLE, 1996

*Se cortó las coletas,
cuando apenas tenía seis años,
su madre puso el grito en el cielo,
esta niña ya no tiene remedio.*


*Porqué jugar con muñecos,
si ella soñaba con aviones,
viajar lejos muy lejos,
vivir aventuras, pasar del colegio.*

*Pasar de las normas,
de rezar el credo.*

**Al cielo si eres buena,
prefiero el infierno.**

*Su primer amor su mejor amiga,
su primer beso en la sacristía,
pasear su amor por las calles,
romper la norma,
tú tienes la llave.*

*Aquellos que se llenan la boca
con palabras como moralidad,
la tolerancia comienza
por dejar vivir a los demás en paz.*




GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA ERAIKUNTZA ESKALAN

IÑIGO GALDEANO PEREZ



**TXORIAK EZ DU KAIOLA APURTU, IHES EGIN DU
ETA KAIOLAK KAIOLA IZATEN JARRAITUKO DU**

Emakumeak etxeetatik irteten ari dira.



IRISGARRITASUNA




GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA ERAIKUNTZA ESKALAN.

Irisgarritasun kontzeptua zabaldu behar da; oztopo arkitektonikoak deuseztatzeaz gain, errealitate fisikoari eta sozialari egoki erantzun behar diogulako.

HIRI ESKALAN "Helburu askotarako bidaia motz ugari alde batetik, eta bestetik, lanean soilik oinarritutako bizimoduaren joan-etorriko bidaia." (Hiria Kolektiboa, 2010;28)

ERAIKUNTZA PROIEKTUAN? Oztopo arkitektonikoak deuseztatzeaz gain, legalki bete beharreko baldintzak betetzeaz gain, eraikinak eskaini dituzten funtzioak irisgarriak izan behar dira; Parainfoa eta komunak ez ezik, bailera gelak, informatika gelaren mahaiak edo liburutegien apalak ere irisgarriak izan behar dira.

Baina haratago joan behar gara, non gauden eta joan nahi dugun lekua non dagoen jakitea beharra dago, orientazio erraza eta inguruko elementu guztien ulermen erraza izatea beharra dago, hau da; Alde batetik, Eraikuntza Proiektuaren proposamenaren korridorea zirkularra denez, beti dakigu non gauden. Gainera, era honetan, beste elementuak beti begi bistan daude, eta informazio puntuetatik, beheko solairuan edo terrazan, fisikoki seinala diezagukete non dagoen bilatzen dugun gela. Beste aldetik, hiru sarrera desberdin planteatu ditut Azpiegitura Berdearen edozein kotetatik sartu ahal izateko.



EGUNEROKOTASUNA





GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA ERAIKUNTZA ESKALAN.


HIRI ESKALAN Emakume askok, egungo bizimoduak halabeharrez bultzatuta, hainbat lan, aldi berean, egin behar izaten ditu. Ardura guzti horiek lanorduekin bateragarri egiteko modu bakarra dago, zaintzako azpiegiturak eskura izatea; **Ekipamenduen Nodoa**.

ERAIKUNTZA PROIEKTUAN? "Helburu askotarako bidai motz ugari alde batetik." "Hainbat gertaeraren elkargunea da nodoa, hainbat bideren gurutzeta." Hau kontuan hartuta Eraikuntza Proiektuaren proposamenean derrigorrez **takilak** jarri behar dira. Hots, bidai motz ugarietarako eragindako erosketa poltsak, haur-aulkiak, motxilak, ... gordetzeko gela proiektatu beharra dago, hiritar guztiek eraikina berdintasunez erabiltzeko ezinbesteko baldintza delako.

EGUNEROKOTASUN EKIPAMENDUA?

Krisi garaian, ekipamenduak hiri-babeslekuak dira. Adibidez, liburutegiak babeslekuak dira interneta eta berogailua dauzkatelako. Beraz, Ekipamendu Kulturalak eta Tailer Publikoak dauzkaten erabilerez gain, Egunerokotasun Ekipamenduan etxean gozaten ditugun erabilerak (ahal dugunok) proposatu dit; Beheko solairuan; Jan-gela publikoa (200m²), eta lehenengo solairuan; Bideo-gela (110m²), Deskantsu-gela (60m²) eta Itxarote-gela (itxaroteko, elkartzeko, eta abar) (60m²).





SEGURTASUNA

GENERO IKUSPEGIAREN ERAGINA ERAIKUNTZA ESKALAN.




HIRI ESKALAN garrantzitsua da espazio publikoan segurtasunaren pertzepzioa izatea, espazio publikoan berdintasunez parte hartzeko ezinbesteko baldintza delako.

ERAIKUNTZA PROIEKTUAN? Alde batetik, "Ingurua ezagutzea (...). Ikustea eta ikusia izatea. Entzun eta entzuna izatea. Irteera bat beti begi-bistan izatea. Espazio publikoan era kolektiboan aritzea."

Alegia, proposatutako Eraikuntza Proiektuan puntu beltzak saihestu dira. Azpiegitura Berdearekin batera altuera anitzeko plaza planteatu da, non edozein kotetan ikusia eta entzuna sentiarazten baitigu, non segurtasun pertzepzioa baitauekagu, non kota bakoitzean sarrera eta irteera bat baitaude.

ERAIKIN FUNTZIOANIZTUNA VS ANAI HANDIA?

Beste aldetik, proposatutako Eraikuntza Proiektua funtzio aniztasuna izateaz gain, ordutegi anitzak era badauzka; Espazio librea 24 orduz irekita dago, Eraikinak ordutegi propioa du, erdi sotoko solairuaren paraninfoa eraikin osoa ireki barik ireki daiteke, jangela baita ordutegi ezberdina izango du, independentea delako (ez dauka barneko komunikaziorik beste erabilerarekin). Horrela, Espazio Publiko bizia lortzen ari gara, polizia eta kamerak sahiestuz.



LUR MADARIKATUA. KOIUNTURA


EGUZKI BEGIRATUZ, 1994

*Urteak pasata ere
ez dugu ezer ulertzen,
ta ulertzen dugunari
beldurrez diogu eusten.*

*Nahiago dugu ibili eskutik helduta,
ikarak hartuta edo begiak itxita.
Ez dugu genozidioaren berririk izan,
ez diogu sarraskiari laguntzarik eman,
lurra pozoindu dute, irribarrea lotu,
arraiak arriskuan, errekak hiltzorian,
hiriak estalita, horma eta harresiak,
jendea itotzen duten
espetxe eta hesiak!!*

*Urteak pasata ere
ez dugu ezer ulertzen,
ta ulertzen dugunari
beldurrez diogu eusten,
pertsonek izan nahi dugu,
eta ez digute uzten...*

*Zer gara, ba?
Automatak, haiei kaso egiten!!*



ONDORIOAK BIBLIOGRAFIA

IÑIGO GALDEANO PEREZ



SUSTRAIAK ERROTUZ
EUSKAL ESKOLA NAZIONALERA!



APURTU ETA ERAIKI; IKASLEOK KOLEKTIBOKI!

Egunero antzinatik datorren guda baten batailak libratzen ditugu. Zapalduen eta zapaltzaileen arteko etengabeko borrokan; **klase, nazio eta genero zapalkuntzak**. Egungo sistema kapitalista-heteropatriarkalaren teknokratek objektibotasun faltsuaren bidez haien helburu politikoak ahaztarazi nahi diguten arren, guk badakigu arkitektura eta hirigintza ez direla neutroak, ez direla apolitikokoak. Egun, arkitektura eta hirigintza klase, nazio eta genero zapalkuntzaren erreminta isilik dira.

DONOSTIAKO ARKITEKTURA ESKOLA

"Ikasle Asanbladak, orain dela urte batzuk, arkitekturako terrazan mural bat margotu zuen. Egun batean, zuzendaritzak, "erotiko-festiboa" zela esanez, eta "zerbait arkitektonikoagoa" behar zela esanez, Le Corbusierren Modulor irudi matxista margotu zuen, asanbladaren muralaren gainean. Modulor ikono matxistak arkitektura osoa gizonaren dimentsioenetara moldatu nahi du. Hots, Leonardo da Vinciren Vitrubioaren eredu jarraituz, Le Corbusierren Modulorrek Albertiren printzipioarekin bat egiten du: **"gizona gauza guztien neurria da."** Eta hori da, gaur egun Donostiako Arkitektura eskolak muraletan, klaseetan, ariketetan, azterketetan bidaltzen digun mezua."

Arkitektura eskolan sustatutako desinformazioa eta akritikotasuna larriak dira, eta jasandako zapalkuntzak egunerokoak. Aurrean hiru fronte erraldoi daukagu, klase, nazio eta genero zapalkuntzak. Bost urte hauetan, arkitektura eskolan, inoiz ez dut entzun merkantilizazio hitza, liberalismo hitza, ... eta behin bakarrik entzun dut genero hitza ikasgelan, irakaslearen barre-algara lotsagarrien artean. Baina, pentsa ezazu; Munduan euskaraz garatzen duen arkitektura eskola bakarra dago, beraz, guk ez baldin badugu sakontzen arkitekturaren eta hirigintzaren eragin linguistikoa, nork egingo du? Gu ez baldin bagara askatzen jasandako zapalkuntzaren kateetatik, nor etorriko da gu askatzera? Harriz harri, ikasleok, kolektiboki, egungo hezkuntza sistema usteldua apurtzeko garaia heldu da. Baina ez bakarrik horretarako. Harriz harri, Euskal Eskola Nazionala eraikiko dugu.

APURTZEKO ERAIKI, ERAKITZEKO APURTU !!!

GRADU AMAIERAKO LANA

Egun, hazkundera jainkotzat jotzen den munduan, Donostia Arkitektura eskolan **-ez besteetan-** Gradu Amaierako Lanean eraikuntza proiektu megalomano bat garatzera derrigortu gaituzte, eta mespretxatzen dituzte eta ez dituzte kontuan hartzen beste arloetan landutako edukiak. Are gutxiago genero ikuspegia. Nik, partikularki, ez dut eraikinak proiektatzea gustuko, ez dut proiekturik egin nahi, eta ez dut arkitektura ulertzen. Ez behintzat eskolan erakusten diguten moduan.

Hortaz, egia esango dizuet; Hau ez zen nik egin nahi nuen Gradu Amaierako Lana. Eraikin bat egitera derrigortu naute, eta ez da egingo nuen proiektua, eskola honen ikusmoldera egokitu behar izan baitut. Eta dirudienez, ez da gaur egungo eskolan gainditzeko moduko proiektua.

Gainera, ezin nuen txosten hau eskolan aurkeztu. Beraz, helburu bakarra du; Nahiz eta sustatutako lehiakortasunaren kontra egon, EHUK antolatutako jardunaldiaren eta sariaren bidez **apurka apurka genero ikuspegiak eskolan erreferentzialtasuna izatea.**

"Genero ikuspegia txertatzen duten Gradu Amaierako Lanak ikustarazteko I Jardunaldiak"

"Genero ikuspegia Gradu Amaierako Lanetan barne hartzearen Francisca de Acutodi sariaren II. Edizioa"

Lotsagarria da, gaur egun, Euskal Herrian horrela ibiltzea. Lan honetan genero ikuspegia halako moduan sartu dut. Hau da, ez dut uste posible denik genero ikuspegia eraikin megalomano batean.

Dena den, ziur aski genero ikuspegia barne hartzen duten lan hobeak etorriko dira; Ikerketa historikoak, espazialak, espazio publikoarenak, pribatuarenak, egunerokoak, adibidez komun komunarenak, seinaleztapenarenak, ...

Ziur aski, nazio eta klase zapalkuntzei aurre egingo dieten lan hobeak eta koherenteagoak etorriko dira, eta hala espero dut.

ANIMO, ETA GORA EUSKAL HERRI ASKE, SOZIALISTA ETA FEMINISTA !!!

BIBLIOGRAFIA

Hiria Kolektiboa (2010): **Hiri analisirako manuala. Genero eta eguneroko bizitza**, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Donostia.

Amaia Albeniz Goikoetxea

Ane Alonso Mendez

Oihane Ruiz Menéndez

Koldo Telleira Andueza

Deyan Sudjic (2007): **La arquitectura del poder. Como los ricos y poderosos dan forma al mundo**, Ariel, Batzeldona.

Jule Goikoetxea (2015): **"Emakumeok ez gara herriaren parte, gu gara herria"**, Jule Goikoetxeari elkarrizketa, www.elearazi.eus.


<http://www.elearazi.eus/2015/03/08/emakumeok-ez-gara-herriaren-parte-gu-gara-herria-jule-goikoetxeari-elkarrizketa/>

Kattalin Miner (2014); **Hurbileko polizia maitea**, GAUR8, www.naiz.eus.

http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2014-05-17-07-00/hemeroteca_articles/hurbileko-polizia-maitea

Santiago Cirugeda (2015): **Santiago Cirugeda (Recetas Urbanas) + Alberto Flores (Makea tu vida)**, hitzaldia, Donostiako Arkitektura Eskola.

Simone de Beauvoir (1983): **El segundo sexo. Los hechos y los mitos**, Siglo veinte, Buenos Aires.



NIÑA Y FIERA. KOIUNTURA

ITOIZ BIEN VALE UN CABLE, 1996

*Nació en el bosque junto al fuego,
noche fría parecía invierno,
su madre supo que no la vería crecer,
una lamia se lo dijo en sueños.
Déjame entrar en tu pequeño mundo
que la luna lo ilumine
tu y yo siempre juntos.
Una noche cubierta de niebla
los soldados arrasaron su pueblo,
ella quedó tendida entre arbustos
hasta que una osa la cogiera.*

Déjame entrar...

*Se acostumbró pronto a su nueva madre,
tan fuerte cálida y tierna,
pero una primavera la osa no despertó,
de su letargo de invierno no regresó.*

Déjame entrar...

*Se cubrió con la piel de su madre
y vivió como lo hacía ella,
jamás se vio criatura tan bella,
en un solo cuerpo niña y fiera.*

